

# noaua

Zumarte Musika  
Eskolakoak,  
laguntza premian

Jaiak hastera doaz


Ramon Unanueri  
eskainitako omenaldia  
hunkigarria izan zen

## berria



# Pagazpe, Berría Txapelketako irabazle

Lasartetik irteera  
Noaoaren laguntzarekin



**POLONIA**

Abuztuaren 29tik  
irailak 5 arte



*Azken  
plazak!*

DEGESTION Taldeko agentzia

943 373 613

info@noaoua.eus

www.noaoua.eus

Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria

# noaoua euskararen aterpe

*Bazkideok egiten dugu posible*

Astekaria, noaoua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN  
ZAITEZ!**

eta opari eder  
hau eskuratu!



Bazkidegiz: urtean 40 euro.  
Informazio gehiago: 943 36 03 21  
elkartea@noaoua.eus

## Ikastaroa: Mahastizaintza ekologikoa

**Irakaslea:** Daniel Pasquet *VINI VITIS BIO-CONSULTANTS* elkartea

\*Frantsez izango da ikastaroa, Cristina Maidagan itzultzaileak gaztelerara itzulita.

**Saioak:**

**Gaia: Mahasti ekologikoaren oinarriak, lurraren maneia eta inausketa berdea**

Uztailak 7: Saio teorikoa Usurbilen (Potxoenea kultur etxean).

Uztailak 8: Saio praktikoa Beizamako Urkizahar baserrian ([www.urkizahar.com](http://www.urkizahar.com))

**Gaia: Mahastizaintza ekologikoaren gakoak, osasunaren kudeaketa eta tratamenduen egutegia**

Irailak 18: Saio teorikoa Usurbilen (Potxoenea kultur etxean).

Irailak 19: Bisita tekniko Artazubillaga baserrira (Bedoña auzoa, Arrasate)

**Prezioa:** Uztaila 60€ (Alkartasuna Kooperatiba eta Biolur-eko bazkideek 40€)

Iraila 60€ (Alkartasuna Kooperatiba eta Biolur-eko bazkideek 40€)

**Izen emateak, uztailaren 5a bitarte (plaza mugatuak):**

**Online:** [www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak](http://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak)

**Alkartasuna Kooperatiba:** 943 361 114 - [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

**Biolur:** 943 761 447 - [josune@biolur.net](mailto:josune@biolur.net)

## Albiste iruditan

# Zigor espedientea Ucin lantegiari

**K**ezka eta haserrea eragiten segitzen dute Ucin lantegiko ke isurketek usurbildarren artean. Urte luzez gertatu bezala, azken asteotan ere hainbat uneetan ikusi eta usaintzeko moduko kiratsa sumatu da herrian. Bizi izan dugun beroaldiarekin are desatseginagoan bilakatu du giroa.

Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez, hirigintza arloko zigor espedientea ireki diote Atxegalde ondoan, N-634 errepi-deaz bestalde Osinalde industriagunean kokatua dagoen lantegiari. Erabaki hau hartu beharrez aurkitu da Udala, "egoera konpontzeko saiakera jarraituek ez dute fruiturik eman" eta.

"Jakitun gara enpresa honen ke isurketek herrian sortzen duten kezkaz, eta legealdi honetan ere beraiekin harremanetan izan gara problematika horri irtenbidea bilatu nahian. Duela bi urte labe berria jarri behar izan zuten Udalaren eskaera jarraituen ostean, eta tarte honetan gure asmoa izan da labe zaharra



"Egoera konpontzeko saiakera jarraituek ez dute fruiturik eman", udal gobernuak dioenez.

behin betiko ixtea eta ke-erazgailu berrira jartzea. Negoziaketa luzeak izan ditugu beraiekin, bolada batean hitz onak ere bai, baina aurrerapausurik ez dagoela ikusita, elkarrizketak eten egin dira. Behin eta berriz ari gara egoeraren larri-

tasunaz ohartarazten Eusko Jaurlaritza, beren interbentzioa eskatzen eta gure inplikazioa eta laguntza eskaintzen. Bien bitartean hirigintza arloko zigor-espedientea irekitzea erabaki dugu", azaldu du Xabier Arregi alkateak.

## Laburrean

### Whatsapp taldea Udajolasen

Oharrak jasotzeko aukera eskaini nahi zaie Udajolasen parte hartzen ari diren haurren gurasoei. Horretarako, whatsapp talde bat sortuko da gurasoei. Jakinarazpenak jasotzeko NOAUA!ren zenbaki hau gorde behar da mugikorren: 688 807 336.

### Odol ematea astebete beranduago

Bi hilean behin ospatu ohi den odol emateko hitzorduak uztaileko lehen astelehenean egokitu beharko lukeen arren astebete beranduago izango da. Uztailaren 10ean, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

### Udal liburutegia, udako ordutegian

Sutegi Udal Liburutegian udako ordutegia dago martxan: astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik eguerdiko 14:00etara. Dena den, uztaileko astelehen arratsaldeetan ere zabalik izango da liburutegia: 17:00etatik 19:00etara.

# noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaUA.eu // www.noaUA.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaUA.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.


**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Maialen Unanue

## Zerotik?

**B**adakit, galdetu gabe ere, atzera begiratu duzula parrandatik etxera bidean. Badakit, galdetu gabe ere, atzetik inor jarraika izan gabe ere, pausoa azkartu duzula. Giltzak eskuan egin duzula etxerako bidea, eta urduritasun puntu batekin atea irekitzean salto egin duzula barrura. Atea itxita dagoela ziurtatu ostean hasi zarela arnasa lasai hartzen. Badakit bizkarra eman diozula gerturatu zaizun eta jaramonik egin nahi ez dizun mutil horri. Badakit eskandalurik ez egiteko egin duzula, hitzez esan gabe ere hurbildu den horrek ulertu beharko lukeelako ez duzula harekin ezer nahi. Gaurkoan ez bada, aurreko parrandan. Badakit, bizkarra emanda ere, ez zaituela bakean utzi, insistituz gero “eroriko” zarelakoan. Eta badakit, zori-

txarrez, kalera atera eta festez gozatzeko egin duzun hautua zapuztu dizula ustez jolasteko gogoia baino ez duen mutil horrek, auzokoek normalizat eta jatorizat joko duten horrek.

Jakin badakigu festa giroa ez dela salbuespena. Urteko egun monotono guztien gisara erasoak egongo direla; edo dena esate aldera, eraso are gehiago egingo dituztela. Klaro, alkohola tartean sartu eta dena justifikatuta baitago. Erasotua bazara, laster hasiko dira hizketa txiki-handiak: zer zeneraman jantzita, benetan bizkarra eman ote zenion mutil jator horri, edota egin zenion irribarre txiki horrek ez ote zion hari zilegitasun osoa eman zuri gaua zapuzteko. Zure askatasuna mugatzeko. Zu erasotzeko. Zu beldurtzeko.

Urteroko matraka da. Denok gara superprogreak eta, halako batean, ai, bost zerriren artean

bortxatu dute neska bat Sanferminetan. Kasu bat aipatzeagatik. Nagore Laffagetaz ez hitz egiteagatik. Zorionez edo zoritxarrez, eraso sexista bakar bat ere ez da geratu azken urteotan erantzunik gabe. Konturatzen ari gara bat erasotzen badute, guztiok erasotzen gaituztela. Baina batez ere, bat erasotzen badute, guztiok erantzungo dugula. Ze pelmak garen.

Ez dakit zer den egiteko gelditzen zaiguna. Nola ulertarazi behar dugun ezetza beti dela ezetz. Nola ulertarazi gure gorputzak gizonenak bezain gorputz direla, haienak bezainbeste direla gureak gure. Eskua sorbaldan, gerrian edo ipurdian jartzea bera gure gorputzaren aurkako inbasio bat dela. Nola ulertarazi biolentzia dagoela bizkarra eman osteko insistentzia zikinean. Nola ulertarazi lato-soak jasan gabe parranda egiteko eskubide berbera dugula

guk ere. Hainbeste kostatzen da bestearen azalean jartzea? Hainbeste kostatzen da ezezko bat onartzea?

Deigarria da. Tristeia. Kriminala, ziurrenik: urte bat pasatzen den aldiro zeroan jartzen dugu/dute indarkeria matxistaren ondorioz hildakoen eta erasotuen kontagailua. Eta ez bagenu zerotik abiatuko? Konturatuko ote ginatkeen ze eskandalu bizitzen ari garen emakumeok? Aurten ere, zoritxarrez, ezingo ditugu festak bakean bizi, nahi gabe ere, beti alerta egon beharko dugulako, gure buruagatik, gure lagunengatik, gure herrikideenengatik. Abiaraziko dituzte kontagailuak zerotik, baina elkar babesteko prest gaudenak biderkatu egingo dira eraso bakoitzeko. Inork ez dezala zalantzarik egin: guk ere jarraituko dugu insistitzen.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Maialen Unanue** | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Construcciones Moyuako nagusi, akziodun eta langileei

**K**aixo Construcciones Moyuaren arduradun nagusi hori, zubietarron izenean idazten dizugu gutun hau. Herritar batzuk etxean jaso dugu zure enpresaren eta UTE Civil Zubietaren logoak dauzkan gutun bat, non abisatzen zaigun ondoko egunetan leherketak egiteko asmoa duzuela Gipuzkoako Erraustegia egin nahi duzuen eremuan, gure herri eta etxeen oso ondoan alegia. Gutunak izenburuan darama “Gipuzkoako Ingurumen Gunean (GIG) lanak aurrera doaz”, baina enpresako inoren sinadurarik ez dauka.

Construcciones Moyuaren

arduradun nagusi zarenez, honakoa esan nahi dizugu:

Gipuzkoak ez du erraustegirik behar, osasunarentzako, ingurumenarentzako, ekonomia-arentzako eta enpleguarentzako kaltegarria delako. Zubietan eta Usurbilen ez ezik, Gipuzkoan egunero ari gara erakusten hondakinak kudeatzeko modu hobea, garbiagoa, jasangarriagoa eta merkeagoa badela. Zuen enpresak hondakinaren arazoari irtenbide kaltegarriagoa eskaintzeagatik kobratzea ez da bidezkoa, eta ez dugu onartzen ez Zubietako herritarrok, ezta gipuzkoarrek ere.

Amiantoarekin gertatu dena

gertatzerik ez dugu nahi: haren kalteak 1906an demostratu, 2001 arte debekatu ez eta bitartean milaka eta milaka heriotza eragiten eta eragingo dituen kutsadurarekin enpresa batzuek negozioa egitea. Mediku eta zientzialariak etengabe ari dira argudiatzen errausketa kaltegarria dela osasunarentzako, jendearen artean heriotzak eta gaixotasunak ugartzen dituela.

Zuek horren jakinaren gainean egon, erraustegia egiten jarraitu eta orain, inguruko herritarroi “leherketa kontrolatu batzuen” oharra pasatzea, broma makabro bat iruditzen

zaigu eta ez dizuegu onartzen.

Gure erantzun hau Construcciones Moyuako gainerako nagusi, akziodun eta langileei jakinaraztea nahi dugu. Izan ere, erraustegi horren konplize zarete zuek guztiok, eta etorkizuneko eragin kaltegarrien erantzule izango zaretenez gero, behingoz arduraz joka dezazuela eskatzen dizuegu. Ez dugu onartuko zuen erraustegi injustu eta kutsatzailea. Zubieta bizirik!

**Zubieta Lantzenek Construcciones Moyuako arduradunari helarazitako gutuna.**

# Leherketak, errausketaren zero gunean

**E**rraustegia eraikitzeko lanen eremuan, hilabete honetan egitekoak dituzten leherketen berri ematen duen ohar bat jaso dute Zubietako bizilagunek, erraustegiko enpresa eraikitzailer taldeko kide den Moyuak-en partetik. Bertan jakinarazten dutenez, “berriki hasi dira hondeaketa-lanak, Gipuzkoako Ingurumen Gune berriaren obra-planean aurreikusitakoaren arabera. Lurrak mugitzen diren bitartean, lau leherketa egingo dira, nahitaezkoak diren baimen guztiekin”.

Aipatu moduan, hilabete honetan egin asmo dituzte leherketok, “egunez beti, eta Udalari aldeztatik jakinaraziko zaio zer egunetan eta zer ordutan izango diren, interesdunek informazioa eskura izan dezaten, eskatuz gero. Helbide elektronikoa bat edo telefono-zenbaki bat ematen digutenei ere zuzen-



Udalari aldeztatik jakinaraziko zaio zein egunetan eta zer ordutan izango diren leherketa horiek.

## MOYUA

**“Lan horiek ahalik eta azkarren eta modu eraginkorrean egingo direlakoan gaude, eta espero dugu sor litezkeen eragozpenak ulertuko dituzuela”**

nean helaraziko diegu informazioa”.

## “Espero dugu sor litezkeen eragozpenak ulertuko dituzuela”

Leherketen harira oharron berri jakinarazten hasi dira. “Leherketak baino lehen, sirena batek joko du ohartarazteko. Soinu-presioaren eta bibrazioen kontrolak egingo dira. Done Jakue Bidea moztuko da”, iragarri dute.

Langon “onurak” nabarmentzen ditu ohar hau zabaltzen ari denak. Hala diote: “Inpak-

tuak eta eragozpenak txikiagoak izango dira, hondeaketa-lanen epeak murriztuko direnez eta makineria astuna erabiliko denez horiek egiteko. Lan horiek ahalik eta azkarren eta modu eraginkorrean egingo direlakoan gaude, eta espero dugu sor litezkeen eragozpenak ulertuko dituzuela”.

## Manifestazioa, jaien atarian

Txupinazoa jaurti aurretik, iaz bezala, erraustegiari aurkakotasuna adierazteko aukera egongo da ostegun honetan, ekainak 29. Txosna batzordeak deitu duen mobilizazioa 19:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Kaxkoko kaleak zeharkatu ostean, jaien hasiera ekitaldia ospatuko den udaletxe aurreko plazan amaituko da manifestazioa.

# “Txikitik helburu handiak lor daitezke”

**H**emendik oso indartuta goaz, horratx astebetetz Donostiako Easo plazan erraustegiaren aurka gose greba egin duen herritar talde batek, ekainaren 21ean baraualdia amaitu berritan esandako lehen hitzak. Hunkituta, pozik eta esker oneko agertu ziren aipatu plazara bertara, astebeteko protestari amaiera ematera bertaraturikoen aurrean.

Esker ona adierazi zieten, lagundu duten guztiei, antolatuta diren ekimenetan parte hartu dutenei, edota modu batean edo bestean babesa eta elkartasuna adierazi dieten denetarikoa eragile eta norbanakoei. Norbanakoen artean, modu berezian eskertu zituz-



Hunkituta, pozik eta esker oneko agertu ziren gose grebalarriak.

ten Amarako bizilagunak. “Ez genukeen ezer egingo Amarako bizilagunak atzetik izan ez bagenu”, zioten gose grebalariek.

Erraustegia geratzeko esperantza eta indarra badela nabarmentzen dute. “Erraustegia gelditu behar dugu, ahal dugu eta jarraitu behar dugu. Hemen

ez da bukatu. Eutsi, esperantza hemen dago eta jarraitu horrela”, adierazi zuten. Jendea erraustegiaren aurkako mugimendura batzera deitu zuten, “oso borroka duina baita”. Gogorarazi zuten, “txikitik helburu handiak lor daitezke”.

Txalo artean, salda edanez eta Estitu Eizagirrek sortutako bertsoak abestuz amaitu zuten ekitaldia. “Eskerrik asko bihotz bihotzez, obrak hasi eta gero, zuek gorpuztaren bidez egin diozuelako aurre honi, begira ze muntatu duzuen”, adierazi zuten Eizagirrek gose grebalariei.

Azpimarratu zuten, astebeteko baraualdia amaitu da bai, baina erraustegiaren aurkako borroka aurrera darrai.

# Jakinminak, mugarik ez



Usurbilgo Udalak Esperientzia Eskolako ikasleei banaturiko diplomekin amaitu zen 2016-2017 ikasturtea.

**K**laseak amaitu, ikaskide edo lankideak agurtu eta oporretan murgiltzeko garaia heldu zaie askori. Baita Esperientzia Eskolakoei ere. Usurbilgo Udalak ikasleei banaturiko diplomekin amaitu zuten ekainaren 13an Artzabal-en, irailaz geroztik abian zuten 2016-17 ikasturtea.

Nabari zen, gustura eta giro ederrean aritu da ikasle taldea. Azken urteotan nabarmen gorantz egin du eskola honetako parte hartzeak. Udalak ere balantze baikorra egiten du 55 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako hezkuntza egitasmo honetaz. "Gustura

## ESPERIENTZIA ESKOLA

**"Irailetik ekainera, astearte arratsaldero bildu ohi dira Esperientzia Eskolakoak, bi orduz Artzabal-en. Lagun artean denetariko ikasgaiak jorratzen dituzte"**

zaudetela jakinarazten zaigu eta gu ere bai. Aurrera jarraitzeko gogoz", adierazi zuen Jone Urdanpilleta zinegotziak, diploma banatze ekitaldian.

Ikasteko grina denona dela gogorarazi eta grina horri eustek duen garrantzia nabarmendu-

ta, Xabier Arregi alkateak zioenez, "asko baloratzen dugu zuek hemen elkartzea, lanean aritzea. Bada hemen giro oso sortzailea. Badugu irudipena hemen egiten duzuen lan hori gero herrian nabari dela. Hori Udalak eta herriak asko baloratzen du. Lan asko eta ondo egiten duzue, segi horrela!".

Ikasteko grinari eutsi eta aurrera begira, emakumezkoekin batera gizonezkoen ere Esperientzia Eskolan parte hartzeko gonbita luzatu zuen alkateak. Ikasle bakoitzari txalo artean jasotako diploma jasoz agurtu zuten ikasturtea. Amaieran, ondoko taldeko argazkia atera zuten guztiek, Artzabal atarian.

## Eskola irekia eta parte hartzailea

Irailetik ekainera, astearte arratsaldero bildu ohi dira Esperientzia Eskolakoak, bi orduz Artzabal-en. Lagun artean denetariko ikasgaiak jorratzen dituzte. "Gai-zerrenda oso zabala lantzen dute partaideek: arnasketak, osasun-zainketa, komunikazioa, informatika, musika, literatura eta abar luze bat. Hau guztia oso modu ireki eta parte-hartzailean burutzen da, eta partaideek ez dute inolaz ere aurretiazko esperientzia edo ezagutzarik izan beharrik", nabarmentzen dute Esperientzia Eskolakoek.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

# Zumarte Musika Eskolako en lekualdaketan laguntzeko deia

**Z**ure laguntza behar dugu! adierazi dute Zumarte Musika Eskolatik zabaldu duten oharrean. Zumarte Musika Eskola, dakienez, lekuz aldatzera doa. 32 urtez egoitza izan duten Villa Pilarretik badoaz aldi baterako, bertan egitekoak diren eraberritze eta handitze lanak bideratu ahal izateko.

Datozen bi ikasturteotan, 2017-18 eta 2018-19 ikasturteetan, herriko txoko ezberdinetan kokatuko dira herriko musikariak; Udarregi Ikastolan, atez ateko bilketaren garai bateko Artzabal inguruko informazio bulegoan, eta Santueneko frontoi atzeko lokalean.

Leku aldaketa uztailearen 5 eta 6an egin asmo dute Zumartekoek. Garraio lanetarako laguntza eskatu dute. "Zumarte



Zumarte berritzen duten bitartean, hiru egoitzatan banatuko da Musika Eskolaren jarduera. Udarregi ikastolan, Santuenean eta Artzabalen. Datozen bi ikasturteetan egon beharko dute sakabanaturik.

Gero Arte" festa egin genuen eta orain musika eskolako instrumentu, altzariak, materiala bildu eta 2017-18/2018-19 ikasturteetan erabiliko ditugun

lokal desberdinetara eramateko lekualdaketa antolatuko dugu".

4 txanda antolatu dituzte uztailearen 5 eta 6rako. Laguntza behar dute. Animatzen denak

idatzi dezala email bat zumarte@telefonica.net helbidera. Bertan adierazi zein eta zenbat txandetan laguntzeko prest zauden.

## Leku aldaketarako txandak

### Uztaileak 5, asteazkena

- 09:00-13:00 Lehen txanda.
- 16:00-19:30 Bigarren txanda.

### Uztaileak 6, osteguna

- 09:00-13:00 Lehen txanda.
- 16:00-19:30 Bigarren txanda.
- Izen ematea: idatzi email bat zumarte@telefonica.net helbidera. "Agian txanda batean parte hartu dezakezu edo gehiagotan". Email horretan adierazi ze txandetan lagundu dezakezun.
- Deitzailea: Zumarte Musika Eskola.



Santueneko frontoi atzean dagoen egoitza.



Atez ateko bilketaren informazio bulegoa izandako egoitza.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

ETXETRESNEN  
**KONPONKETAK**  
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER  
**Usurbil**

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

# Etxebeste eta Hirutasuna kaleak urbanizatzerako doa Udala

Irisingarritasun arazoak konpondu eta azpiegitura sarea berritzea zen helburu nagusia. Iaz gauzatu zituen Usurbilgo Udalak, Irazu kaleko urbanizatze lanak. Duela urtebete iragarritakoa betetzera doa orain; frontoiz bestaldeko Etxebeste eta Hirutasuna kaleak urbanizatuko ditu. Lanok bideratzeko udako oporraldia baliatu asmo du Udalak. Uztailean sartzearekin batera, jaien ostean abiatuko dituzten lanak hiru hilabetez luzatzea, hau da, iraila amaierarako bukatzea aurreikusten dute.

“Iaz Irazu kalean egin ziren lanei segida eman eta gune horretako irisingarritasun zein segurtasun arazoak konponduko dira. Izan ere, gaur egun harri galtzadak sortu ditzakeen oztopoak arinduko dira, orain artean dauden harri berberak ebakiz, leunduz eta berrerrabiliz. Modu horretan, orain arteko izaera mantentzeko ahalegina egingo dute udal ordezkariak”, berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

Irazu kaleko lanetarako 191.552 euro inbertitu zituen Usurbilgo Udalak. Bigarren fase honetarako, Hirutasuna eta Etxebeste kaleko urbanizatze lanetara, 259.755 euro bideratuko dituzte. Kale Nagusi aldetik hasiko dituzte obrak. “Proiektua eta obren zuzendaritza Inforlur enpresak gidatuko du Construcciones Lasuen S.A. izango



Herriko jaien ondoren hasiko dira lanak eta hiru hilabetez luzatuko direla diote udal iturriek.

da kontratista. Obrek eragin ditzaketen eragozpenak direla eta, udaleko ordezkariak alde

aurretik barkamenak eskatu nahi dizkiete bizilagunei”, ohartarazi dute.

## Jaietan euskara zaintzeko apustua

Jai gune euskalduna izaten segitzeko apustua berresten dute bai Usurbilgo Udalak baita Jai Batzordeak berak ere Santixabel hauei begira. Horren adibide, ospakizun egunoi begira hartu diren bi konpromiso. Batetik, txosna guneak bertan entzungo den musikaren %80a euskaraz jartzea adostu da. Honez gain, Usurbilgo Udalak anbulatorio pareko apartekalekuan kokatuko den ferigunearekin hitzarmen bat ere erdietsi du. Bertan eskaintzen duten zerbitzuan, baliatuko den hizkuntza irizpide zenbait finkatzen dira. Batetik, “herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatzen saiatuko da”.

### Feriaguneko konpromisoa

Honez gain, txosna gunean bezala, euskarazko musika jartzeko konpromisoa hartzen dute ferriagunean egongo direnek. Bada hirugarren konpromiso bat ere; “herritarren esku jartzen diren agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz emango dira ezagutzera. Udal Euskara Zerbitzuak emango ditu itzulpenak”.

**Patrimonia**  
Iatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**

PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**Iñaki**  
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

**600 024 825**



# Pagazpe Pilota Elkarteko pilotariak etxera ekarri zuten Berria Txapelketako kopa

Aurreko igandean Hernaniko udal pilotalekuan, Berria Txapelketako finala jokatu zuten Usurbilgo Pagazpek eta Tolosak. Kadeteen artekoan, Tolosak irabazi zuen. Goikoetxea-Etxeberria tolosarrek 22-7 irabazi zieten Galarraga-Iruretagoiena usurbildarrei. Jubeniletan, ordea, Pagazpeko bikotea gailendu zen. Exposito-Aranguren (Usurbil) 22, Zalakain-Auzmendi (Tolosa) 5. Bana berdindurik, partida erabakigarria nagusien mailakoa zen. Pagazpeko bikoteak irabazi zuen, baina asko sufritu ondoren.

Nagusien partida ikusgarria izan zen. 10-1 aurreratu zen Tolosako bikotea. Une horretan, txapelketa Tolosakoentzat izango zela argi zirudien.



Xabier Arregi alkatearen eskutik jaso zituzten txapelak. Garaipen honi esker, Pagazpe elkarteak 3.000 euro eskuratu ditu.

Baina Santxo eta Gorrotxategi Pagazpeko pilotariak euren erritmoa ezartzen hasi zirenean, markagailua parekatzen

hasi zen. Lehia estuan iritsi ziren azken txanpara. Santxok eta Gorrotxategik urte asko egin dituzte elkarrekin. Final

ugaritan aritutakoak dira eta esperientzia hori baliogarri egin zitzaizen. 22-19 izan zen azken emaitza.

## Bigarrenenez irabazi dute Berria Txapelketa

Euskal Herriko 21 pilota elkarte onenek hartu dute parte XIV. Berria Txapelketan. Gipuzkoak zortzi ordezkari izan ditu, Nafarroak bost, Bizkaiak beste bost, Arabak bi eta Iparraldeak bat.

Nabarmentzeko berritasuna izan du aurtengo txapelketak, estreinako aldiz fitxatutakorik ez baita onartu. Klubek aurkeztu zituzten pilotariak elkarteko lizentzia eduki behar zuten. Antolatzaileek, era honetan, klubetako lana saritu nahi izan dute. Apirilaren abiatu zen eta ekainaren 25ean amaitu zen, Hernaniko San Joan jaian aitzakian.

### Aurkari gogorrak

Final zortzirenetan, Intxurre Alegiako taldea izan zen usurbildarren aurkaria.



Hamalau edizio bete ditu Berria Txapelketak eta bitan Pagazpe izan da garaile. Argazkian, finaleko protagonistak. Tolosa zein Usurbilgo jokalariek.

Final laurdenetan, Pagazpek Oberena taldea izan zuen aurrez aurre. Usurbildarrek asko sufritu zuten Iruñeko Oberena kanporatzeko, azken partidako azken tantoak erabaki baitzuen lehia.

Final aurrekoetan, Pagazpek

Ilunpe Azpeitiko pilota elkar-tea gainditu behar izan zuen.

Finalean, Tolosa arerio gogorra izan zen. Usurbildarrek eskuratu zuten ordea XIV. Berria Txapelketa. Pagazpek garaipen hau lortzen duen bigarren aldia da.

## Tolosa izan zen finaleko aurkaria

Kadete mailako partida irabaztean, Tolosak hartu zuen aurre. Gazteen eta nagusien mailako garaipenei esker, ordea, Usurbilgo taldeak mendean hartu zuen Tolosakoa.

### ■ Kadeteak

Goikoetxea-Etxeberria (Tolosa) 22  
Galarraga-Iruetagoiena (Pagazpe) 7

### ■ Gazteak

Zalakain-Auzmendi (Tolosa) 5  
Exposito-Aranguren (Pagazpe) 22

### ■ Nagusiak

Labaka-Telletxea (Tolosa) 19  
Santxo-Gorrotxategi (Pagazpe) 22



Joxe Antonio Errastik jaso zuen kopa.

# Merezitako aitortza herritarra,

Usurbilgo herriaren aldetik omenaldi hunkigarria, ohorezkoa eta ofiziala, eta zerbait eransteko-tan, dudarik gabe merezitakoa jaso zuen Ramon Unanuek joan den larunbatean antolatu zitzaion aitortza herritarrekin. Omenaldi ekitaldiak berak txalo ugari eta emozio handia eragin zuen bertaraturikoen artean.

Txalapartarien saioak abiatu zuen Mikel Laboa plazako hitzordua. Jarduera ezberdinen ikur diren jokorako kirol tresnak eskutan markatu zien oholtza gainerako bidearekin egin zieten harrera Unanueren senideei, eragile ezberdinetako ordezkariak.

Denetariako osagaiak izan zituen omenaldi ekitaldiak. Ikurrinaren dantza ikusgarria eskaini zieten. Kerman Rekondok bertso ederra abestu zuen. Ramonek oparitutako harria altxa eta sorbalda gainean zuela itzulia eman zion Mikel Laboa plazari Idoia Etxeberria harrijasotzaileak. Altxaldia, entrenatzaile izan zuen Unanueri eskaini zion oriotarrak. Aitortza herritarra antolatu zuen talde sustatzailearen eskutik, zumetatarren sortze lan ederra jaso zuten Unanueren senideek, oroigarri gisa.

## Eskertza zaparrada

Ramon Unanue Matxainen omeneko ekainaren 24ko aitortza herritarrean, beste edozeren gainetik hitzen bat gailendu bazen, hori eskertza izan zen. Eskertza zaparrada jaso zuen Ramonek, bera ongi ezagutu zuten senide, lagun eta kirol talde hainbaten ahoe-tatik. Une hunkigarriak bizi izan ziren. Ramonek utzi duen ondarearen eta egin duen ekarpenaren tamainako hitz eta bi- zipenak inondik ere:



Omenaldi ekitaldiak jende ugari erakarri zuen.

### EKAINAREN 24AN

**Denetariako osagaiak izan zituen omenaldi ekitaldiak. Ikurrinaren dantza ikusgarria eskaini zieten. Kerman Rekondok bertso ederra abestu zuen. Ramonek oparitutako harria altxa eta sorbalda gainean zuela itzulia eman zion Mikel Laboa plazari Idoia Etxeberria harrijasotzaileak...**

#### Idoia Etxeberria, harri jasotzailea

“4 urte zoragarri pasa nituen Ramonen ondoan, neure kirol ibilbideko lau urte oparoenak. Minik gabe, animu aldetik beti goian, beti laguntza bat ondoan. Hil zenez geroztik hutsune handia dut. Eskerrik asko Ramon erakutsi zenidan guztiagatik, ez zaitut ahaztuko eta ahal dudan arte segiko dut zuk erakutsitakoarekin gozatzen”.

#### Joxe Mari Azkonobieta, Usurbil K.E.

“Guretzat gizon langilea zen. Gugana etorri zenean, erakutsi zigun pertsonalki ere zer lan egiten zuen. Berak gutako bakoitzari barrutik genuen guztia ateratzen zigun. Lanean oso gogorra zen, baina hala izan behar zuen. Ramon beti gogoan izango dugu. Bere familiari adierazi, harro egon litekeela izan zuen senar eta aitaz”.

#### Iñigo Pagola, Usurbil F.T.

“Ramonek egin duen lana handia izan da, utzi duen maila gaintitza oso zaila izango da. Kirolariei erakutsi zizkien baloreak ezinbestekoak izan ziren, kirolaren garapen osasungarria aurrera eramateko. Gaur Usurbilen ikusi dugun kirolaren festa ederra izan da, Ramonek berak kirolarekin egindako lana bezain ederra. Agur goxo bat familiari. Jarrai dezagun hark hasitako bidearekin”.

#### Enrike Huizi:

**“Ramon Unanuek entrenatzeko gaitasuna, indarra eta pasioa zuen”**

“1987. urte hartan pilotari talde polit bat frontoian ibiltzen ginen Pako Alkortarekin entrenamenduetan. Ikusiko zuen gehitxo nekatzen ginela, eta han bidali zigun Kalezarrera Ramonekin. Sinestu ieza-dazue, gu bezalako pilotari taldea, korrika, saltoka eta ariketa fisikoak egiten jartzea bastanteko miraria zela, baina hark lortu zuen. Hor erakutsi zigun guri gizon honek zeukan entrenatzeko gaitasuna, indarra eta pasioa. Pilota elkartetik, ibili ginen urte horiengatik eskerrak eman besterik ez dugu Ramoni”.

# Ramon Unanue Matxaini

## Kontxi Carbayeda, Buruntzazpi

“Lana eta saiakerak hartzen zituen oinarriztat, gogotik sufritzea, atsedanak tarteko. Zenbat ordu pasa ote zituen gurekin eta zenbat gozatu ote genuen berarekin. Emaitzak ere lortarazi zizkigun, txapeldun asko tartean. Berdin zitzaion aurreko puntan zebiltzanak, edo atzeraxeago ezinean. Bere erronka aurreko marka hobetzea zen. Eta hori barneratuarazten zigun ilusioz. Aipatu ere, guri eskaini zizkigun ordu guztiak familiari xahututakoak izan zirela, beraz gure eskertza bihotzez eta txalo bero bat zuentzako”.

## Ramonen lankideen izenean

“Ramon ez zen kirolari soil bat izan, praktikan jarri edo irakatsi zituen alor ezberdinetan. Bere esku eta aholkuekin ere hainbat kirolari eta langile lagundu zituen. Ramon gizon biziki abertzalea izan zen. Gaztetatik eta Savasan lan egin bazuen ere, injustizia eta abusuen aurrean altxatzen zen. Ramonek enpresa komite eta komizio ezberdinetan langileen ordezkari eta defendatzailea izan zen eta ia 25 urtez gainera. LAB sindikatuko militante ere izan zen eta. Bere lanarekin berak bezala pentsatzen genuen miresmena eta maitasuna irabazi zituen. Eta berak bezala pentsatzen ez zutenen errespetua eta onarpena. Gizon konprometitua, lagun izugarria eta lankide ona izan zen. Hain bihotz handia zuen, gorputza ere handia behar zuela. Gora Ramon!”.

## Pello Errasti, Ramonen ikasle ohia

“1984. urtean hasi nintzen berarekin Haur Eskola dagoen lekuan. Ramonek entrena-tzaile bezala zituen emaitzak



Ramon Unanueren senideek, oroigarri gisa, zumetatarren lan ederra jaso zuten.

### KONTXI CARBAYEDA

**“Emaitzak lortarazi zizkigun, txapeldun asko tartean. Baina berdin zitzaion aurreko puntan zebiltzanak, edo atzeraxeago ezinean. Bere erronka aurreko marka hobetzea zen”**

denok ezagutzen ditugu. Hainbeste ezagutzen ez dena da Ramonek argi zuen gauza bat. Berak nahi zuen Kalezarko lokal hura, kirolaren inguruan jendea elkartzeko izatea. Hara joaten ginen arratsaldero, denok han biltzen ginen. Lortu zuen ez bakarrik jendeak bere markak hobetzea, baizik eta gaur egun oraindik lagun talde handi bat osatzea”.

### Rafa Puignau, Atletico San Sebastian

“Nik kirolari bezala ezagutu nuen. 17 urterekin hasi zen Atletico San Sebastianen. Gerotik izugarritzko hartuema-na izan genuen, beti galdezka zer egin eta zer ez. Bera bere saltsekin, hor ibiltzen zen. Oso

eskertzekoa da omenaldi hau halako saltsero bati egitea, oso onuragarria denontzat”.

### Xabier Arregi, Usurbilgo alkatea

“Ramonek lotu egiten zituen, elkar osatu, kirola, hizkuntza, kultura, herri ondarea, eta herri baloreak. Horregatik, Ramonek egindako lanak badu herri dimentsioa eta hori goratu nahi dut hemen. Ramonek bere txilborretik haratago begiratzten zuen, eta ilusioak, grinak, eta sentimendu kolektiboak bultzatzen zuen beretik zuen guztia ematera. Horregatik, Usurbil bizi, konprometitu eta elkarrekin lanean aritzen dakien Usurbil baten alde egin zuen behin eta berriz bere jarduera guztietan. Horregatik, Ramon Usurbilgo ondare humanoa da”.

### Semeen hitzak

“Kaixo aita, gaur zugatik hemen bildu gara familia, lagun eta ezagunak. Zuretzat dira zure bi semen hitz hauek:

*Zu zara usurbildarra ta euskalduna*

*kirol munduan aski ezaguna laguntza behar zutenen laguna kanpotik gogorra ta barrutik biguna bizitza honetan asko erakutsi diguna eta bizi garen artean gurekin eramango deguna. Eskerrik asko aita!”*

## Kerman Rekondoren bertsoa

Ongi etorri denori senidetatik hasita zure lanaren aitortzaz Ramon degu gaurko zita azken pisua ez da jaurti gugan zaude itsatsita gorputz prestakuntzarako zu zinen gure botika zenbat ikasi genduen zure eskutan jarrita herriko kirol taldeak egin zenituen elika ezindu banakakoak luze luzea da lista herriko seme alaben askoren maixu ta aita

# Kirol erakustaldi ugari bere omenez

**B**i helburu zituen ekainaren 24ko omenaldi egunak; Ramon bera nor zen ezagutzera ematea eta merezitako aitortza egitea bere senideei.

Omenaldi egunaren hasieran, antolatzaileek nabarmentzen zuten moduan, Ramonek bere bizitzan zehar landu zituen denetariako kirol jarduerak islatu nahi izan ziren. Unanuek jarduera guztiotan belaualdi bat baino gehiagoko herritarrak hezi izan zituen hamarkada luzez. Haietako bat baino gehiago ikusi genituen ospatu ziren denetariako kirol jardueretan; beterranoen arteko eskubaloia eta futbol partidetan, pilota egokituan, txirridularientzako ginkanan, pisu jaurtiketan, giza proban...



Erakustaldiez gain, argazki erakusketa bat antolatu zuten. Argazki horiek Oiardo Kiroldegian aurkituko dituzue.

## Iruditan oroituz

Ramon ez zen oso argazki zalea, baina antolatzaileek argazkiak uzteko eginiko deialdiak izandako erantzun onari esker, Unanueren bilduma ederra ikusgai izan zen

aitortza herritarraren egunean bertan, Mikel Laboa plazan. Irudion bidez ere omendua nor zen eta eginiko lan itzela islatu zuten. Argazki erakusketa hau Oiardo Kiroldegian bisitatu ahalko duzue uztaila-

ren 8ra arte.

## Omenaldiko argazkiak sarean

Ramon Unanueren omeneko ekitaldien bideo eta irudiak, noaua.eus atariko Argazkitegian dituzue ikusgai.



Beteranoen arteko eskubaloia eta futbol partidak, pilota egokitua, txirridularientzako ginkana, pisu jaurtiketa, giza proba... Eskaintza oparoa izan zen.



Ramon Unanueri eskaini zitzaion omenaldiko argazki eta bideo gehiago noaueus web orrian aurkituko dituzue.



**Klik! batean**

## Jaurtiketa baten kronika grafikoa

Bola astuna ahalik eta urrutien botatzea. Pisu jaurtiketa horretan datza. Indarra ez da nahikoa, ordea. Beste kirol jarduera guztietan bezala, honetan ere kontu txiki asko hartu behar dira kontuan.

Argazkia: Ion Markel



# Emarri, harri tiraka jaietan

**E**marri taldea datorkigu Usurbilgo jaietan, giza proba erakustaldi bikaina eskaintzera. Nahiz kideek gogorarazi digutenez, erakutsi ez, lehiatu egin nahi dute eta gogor borrokatzen dabilta zeregin horretan. Olatz Mitxelena Emarriko kide da eta adierazpenok egin dizkio NOUUA!ri.

**NOUUA! Iazko San Ixidro egunean izan zineten Usurbilgo plazan. Ze berezitasun ditu gu-neak, halako proba baterako?**

**Olatz Mitxelena Garmendia:** Ikaragarri luzea da. Gogorra da plaza. Iaz atsedenaldira luze samarrak egin genituela oroitzen dut. Plaza oso polita da halere. Giro oso polita izan genuen.

**Nolako uda datorkizue?**

Normalean udan izaten ditugu proba gehienak, Arbizun izan berri gara eta pozik. Nafarroan ez ditugu proba asko egin, baina pixkanaka gehiago ari gara egiten. Gainerakoak, inguru honetan izango ditugu.

**Emarri taldeko kide zara. Aurkeztuiguzu.**

Bi talde kide lehenagotik Er-gobiko neska taldean aritzen



Emarri taldearen esanetan, Usurbilgoa plaza polita da baina gogorra. "Iaz atsedenaldira luze samarrak egin genituela oroitzen dut", hala esan digu Olatz Mitxelena Garmendia. Larunbat arratsaldean artituko dira Emarrikoak.

## EMARRI

**"Guk badugu beti erreibindikazio puntu bat, baina ezin duguna ahaztu da guk kirol hau egiten dugula kirol hau egitea gustatzen zaigulako, beste edozeren gainetik"**

ginen harri tiraka. Baina talde gisa 2013ko urria aldera hasi ginen entrenatzen. Azaroan izan genuen gure lehen proba, Goizuetako ferietan. Galdu egin genuen eta galtzen segi genuen, irabazten hasi ginen

arte. Goizuetan ordea talde bat osatzea lortu genuen. Hain ondo bat egin genuen, gustura egin dugula, 2013tik 2017ra lan guztia. Materialarekin ere moldatzen ginen, gure lehengusuetako batek egin zigun harria.

**Izenak izana ematen dio taldeari. Zergatik Emarri?**

Izenarekin izan genituen hasiera batean konplikazio gehienak. Leku askotan izena herri bati lotzeko joera dago. Gure kasuan ordea Astigarraga, Oiartzun, Lesaka, Lezoko neskak gaude. Horregatik, herri batera ez genuen lotu nahi.

Harremana banuen Xabier Amurizarekin eta email bat bidali nion. Bota nizkion buruan genituen izenak eta berak ateratu izen hau, Emarri. Emakume eta harri, "ema" horrek ematen dion goxotasuna badu baina baita ere "arrik" ematen dion indarra. Denoi gustatu zitzaigun Emarri.

**Emakume kirolariei plazan dagozkizuen lekua hartzen ari al zarete?**

Plazan lekua egin behar duzu zuk zeuk. Eta zuk neurtu behar duzu zure neurri edo pisu batean. Ikusle askok sentitzen du, helburua gizon talde bati bere pisuan irabaztea izan behar duela. Eta ez da inondik ere horrela. Nik kirol jarduera honetan onena izan nahi badut, nere proportzioetan izan nahi dut. Ez dut ezta gutxiagorik ere, altuera eta pisua bikoizten didan mutil bat baino hobea izan nahi. Mutil talde batekin lehiatu behar bagara, ahalik eta proportzionatuena izan dadila. Beraiek izan dezatela 900 kg-ko harria eta guk 550ekoa. Jendeak ulertu dezala behingoz, hori dela neurketa bat.

## "Oraintxe lau talde gabilta"

**NOUUA! Nesken arteko txapelketarik egiten duzue, ze mugimendu duzue?**

**Olatz Mitxelena Garmendia:** Oraintxe lau talde gabilta. Ibarako neskak entrenatzen ari dira, gu ere bai. Mendaron talde mistoarekin ari dira aurten eta Zeanurin Harriti taldea entrenatzen ari dira eta plazetan dabil. Gu saiatzen gara urtero maiztzean Perurenan txapelketa bat antolatzen. Azken bi urteetan ezinezkoa izan da. Argi eta garbi dut kirol honetan hobetu eta kirol hau

hobeto posizionatu nahi badugu, emakumeen arteko zerbait antolatu behar dugula. Txapelketa ez bada topaketa. Gu hasi ginen dena galtzen, piloa entrenatu eta asko hobetu dugu. Horrek bere fruituak eman ditu eta horregatik halako gogoia badugu txapelketa hori antolatzeko. Oso talde aktiboa gara, gu ez gara konformatzen ezezko batekin. Kirolariak gara, ez gara erakustaldiak egiten dituen talde bat. Trebatu eta lehiatzeko entrenatzen dugu. Norekin lehiatu ez

baduzu, egindako ahaleginak ezertarako balio duenik ikusten ez baduzu, plazan nekatu eta erretzeko aukera dago.

**Aurrera begirako erronketako bat litzateke honakoa beraz?**

Batetik ofizialtasuna eta bestetik egiten ulertzea guk kirola egiten dugula. Federazioaren laguntza ez da ezinbestekoa, baina garrantzitsua da kirol hauetan sinesten duen federazio bat izatea. Adierazgarria da,

herri kirol bakarra da gurea momentu honetan emakumeek bakarrik egiten duguna.

**Bada garaia ofizial egitekoa.**

Bai baina ez edozein prezioetan. Txapelketa bat antolatzeko arazorik ez dugu. Federazioak herri kirol guztietan sinesten badu, aktibo potente bat aktibatze-ko aukera du. Federazioak herri kirolaren parte hartzen duten pertsonak zaindu eta bere lekua ematen ez badie, herri kirol hauek galdu egingo dira.



# “Saiatuko gara erakustaldi polit bat egiten”

**H**alaxe adierazi digu Idoia Etxeberria harri jasotzaile oriotarrak. Prestatzaile izan zuen Ramon Unanueren omenaldian ikusi genuen aurreko larunbatean. Jaietan, larunbat arratsaldez bueltan dator, erakustaldi ederra eskaintzera.

## NOAUA! Ezaguna duzu lehen-dik Dema plaza. Zer berezitasun ditu?

**Idoia Etxeberria Ikutza:** Plaza oso berezia iruditzen zait. Harri jasotzen jardun izan gara plaza horretan eta, aitona ere Aginaga aldekoa dugu.

## Marka ugari hautsi dituen kirolaria zara.

16 urtera arte ez zidaten utzi marka ofizialak homologatzen. 16 urterekin hasi ginen pixkanaka, harri errektangularrarekin, kubikoarekin ere lan batzuk eginez. 2009an egin nuen lehen marka. Gaur egun nuen dudana, iaz apirilean egin nuen Idiazabalen. Bi eskuekin 163 kg-ko harria jaso nuen, eta egun berdinean handik 15 bat minutura, esku batekin 118 kg-koa. Hiru minutuko bi txanda izan ziren eta bi txandetan, bina jasoaldi eman nizkion.

## Marka hobetzekotan zara, edo muga jarria duzu?

Garrantzitsuena muga ez jarzea dela iruditzen zait. Urtero joaten zara zure bidea markatzen, helburu batzuk markatzen dituzu denbora aurrera doan bezala. Orain arte egin izan ditudanak ondo atera zaizkit. Zorte aldetik ondo atera zaizkigu eta gustura gaude. Baina baldintza asko hartu behar dira kontutan; gogoia, motibazioa, urte garaia, uda giroa ez baita ona izaten markak haustera joateko... Halere helburuak jarri eta mugak ahalik eta urrutien ikustea da garrantzitsuena.

## Erakustaldiak egiten aritzen



“Azken urteetan aizkoran ere erakustaldi askotan eskatzen dituzte neskak, harri jasotzen eta txingatan ere bai”, Idoia Etxeberriak adierazi digunez.

### IDOIA ETXEBERRIA

**“Plaza oso berezia iruditzen zait Usurbilgoa. Harri jasotzen jardun izan gara plaza horretan eta aitona ere Aginaga aldekoa dugu”**

**zara baina sarritan aipatu duzu lehiatu nahi duzula. Aurrerariak falta dituzu ordea?**

Zaila dago. Kirol jarduera go-

gor bezala da ezaguna harri jasotzea gizonezkoen artean, emakumeetan are zailagoa. Bagoaz ordea pixkanaka. Bidea markatu dugun harrijasotzaile batzuk bagaude. Ia denborarekin besteren bat animatu eta txanda emateko moduan garen.

**Orio, Zarautz inguruan dauden eskolak ere harrobia sortzen laguntzen ariko dira. Ze mugimendu sumatzen duzu?**

Orain artekoa. Nesken aldetik Izetaren eskolan Estitxu Almandoz ibili izan da, ni Joseba Ostolazaren eskolan nabil. Plazan gabiltzanak edo ibili garenak gu biok gara gaur egun. Badakit entrenatzen gehiago badabiltzala baina ez dira animatzen plazara ateratzera. Ia xaxatzen ditugun eta ateratzen diren plazara haiek ere, jende aldetik ere giro gehiago izateko eta beraiek ere ez beldurtzeko. Bakoitzak bere lana egin eta gustura geratzea, hori da garrantzitsuena.

**Herri kirolean emakumeak plazan dagokizuen lekua hartzen ari zarete?**

Bai eta dudarik gabe gainera. Orain jendeak nobedadea nahi du plazatan. Azken urteetan aizkoran ere erakustaldi askotarako gonbidatzen dituzte neskak, harri jasotzen eta txingatan ere bai. Esatera ausartuko nintzateke orain gaudela punturik politenean, plaza guztietan ari dira emakumeak parte hartzen, nonbait berria da edo. Jendeari atentzioa deitzen dio.

## “Ea gazte jendea animatzen den”

**NOAUA! Arraun munduko familiatik zatoz. Familia barruan ere bide urratzailea izan zara?**

**Idoia Etxeberria Ikutza:** Birraitona, aitona arraunean ibili izan ziren. Baina familiak herri kirolekin ere beti izan du lotura. Aitona dema asko jokatuakoa da. Aita ere auzoko festetan beti ibili izan da herri kirolean. Lehen afizio bezala egiten zen, nahiko lan izaten zuten etxean. Lehen agian ez zieten nahi zutena egiten uzten eta guk dena eskura dugu, pribilegiatuak gara gustuko duguna egiteko moduan baikara.

Bai ni, bai nere bi anaiak herri kirolean gabiltza eta etxetik dugun babesa handia da. Beti animatzen gaituzte.

**Emakumea eta herri kirolak ikusgarriago egiten lagundu duzu.**

Ni hasi nintzenean bazebiltzan Miren Urkiola eta Mari Jose Sardon. Beraiek erreferente bezala hartuta plazan hastea ez zitzaidan zaila egin. Zaila egin zitzaidan bakarrik geratu nintzen une horretan aurrera egite hori. Gero prestatzailea ere hil zitzaidan, eta une gogorak

pasa nituen, uztekotan egon nintzen.

**Ez zenuen uztea erabaki, eta erabaki harekin asmatu duzu.**

Segitzen dugu. Ia erreleboa emateko moduan garen, gazte jendea animatzen den eta jende gehiago ateratzen den herri kirolean aritzeko.

**Gonbita luzatu asteburuko herri kirolen erakustaldirako.**

Libre dagoenak eta herri kirol ikuskizunaz gozatu nahi duenak hurreratzeko plaza-ra, giro polita sortuko da.

# Jaiak, asteburu bakar batean

## Ekainak 27, asteartea

- 17:30 Pala Txapelketa. Kirol egokituen erakustaldia, emakumezkoen finala eta gizonezkoen finala.
- 22:00 Futbito txapelketako finalak.

## Ekainak 29, osteguna

- 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
- 10:00-13:30 Jolas Parkea frontoian (6 -12 urte bitartekoentzat).
- 12:00 Apar festa, Ikastola Gorriko plazan.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria.
- Ondoren, oilasko-biltzaileen jolasak.
- 16:30 Haur eta gaztetxoentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan banatuko da).
- 18:00 Pintura lehiaketako sari-banaketa.
- Ondoren, umeen eguneko abestiaren entsegua.
- 19:00 Erraustegiaren aurkako manifestazioa txosnetatik.
- 19:30 Txupinazoa eta Ikurriaren igoera Udaletxetik, Hurbilagoren eskutik.
- Ondoren, buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
- Arraiketai txaranga.
- Jarraian, herriko dantzarien emanaldia frontoian.
- 22:00 Bertsolariak frontoian: Amaia Agirre, Amets Arzallus, Etxahun Lekue eta Igor Elortza.
- Jarraian, XLI. Santixabeletako bi bertsopaper lehiaketetako sari banaketa.
- 23:30 Txosnagunean bertsio gaua.

## Ekainak 30, ostirala

- 10:00 Ume-gazteei harrera. "Zatoz, koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren



Ekainaren 30ean ostirala, txosna gunean egingo da gazte bazkaria.

eguneko abestia dantzatzera!"

- Egunean zehar, txu txu trenna.
- 10:00-13:30 Jolas parkea frontoian (6 urte bitartekoentzat).
- 10:30-12:30 Ginkana (LH1etik LH4ra bitartean).
- 10:30-12:30 Gaztetxoentzat jolasak (LH5etik DBH2 bitartekoentzat).
- 11:00 Helduentzako Toka Txapelketa Artzabalen.
- 12:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilarietara.
- 13:30 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian. (Norberak ekarrita).
- 14:00 Gazte bazkaria txosnetan. Gazte eguna. Motxaila Elektrotxaranga.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega Jauregian.
- 15:30 Olatz Kortarekin dantza frontoian.
- 17:30 Txokolata Askatasuna plazan.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
- 18:00 Helduentzako Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.
- 23:00 Kontzertua frontoian: Laiotz.
- 02:30 Txosnaguneko kon-

tzertua: Egurra ta Kitto eta Ez-tengiro.

## Uztailak 1, larunbata

- 09:00 Esnadeia dultzaine-roekin.
- 11:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera Mikel Laboa plazatik.
- 11:00 Helduentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia.
- 12:00 Buruhandiak dultzaineroekin.
- 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira Kuxkuxtu txaranga lagunduta.
- 12:30 Trikitilarien kalejira: Usurbilgo Triku taldea.
- 14:00 Zikiro jana presoan eskubideen alde Askatasuna plazan.
- 16:30 Haur eta gazteentzako Santixabel Bola Txapelketa.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilarietara.
- 18:00 Arraiketai txaranga.
- 18:00 Auzo desberdinen arteko "desapiyua" herrian zehar.
- 18:30 Herri kirolak: idi-dema, zaldi dema eta giza proba.
- 18:30 Erromeria txosnetan:

Elizagoien ahizpak.

- 19:00 Helduen danborrada.
- 20:00 Euskal presoan eskubideen aldeko ekitaldia Olanoeneko plazan (Potxoenea ondoan).
- 23:00 Kontzertua frontoian: The Icer Company eta Skasti.
- 02:30 Tremenda Jauria txosnetan.
- Ondoren herriko Dja: Seymar.

## Uztailak 2, igandea

- 07:00 Eonian Elektrotxaranga.
- 09:00 Gaupaseroen argazkia.
- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- Goizean zehar, dultzaine-roak.
- 11:00-14:00 Erraldoi eta buruhandien II. Topaketa: Añorga, Orereta, Zizurkil eta Usurbilgoak.
- 11:00 Ur bataioa Kiroldegian.
- 11:30 Zanpantzarrak.
- 12:00 Soka-dantza Udaletxe aurrean.
- Jarraian, lore eta salda banaketa.
- 12:30 Herri-kirolak: Gipuzkoako Goi Mailako Aizkolari Txapelketa eta Euskal Herriko emakumezkoen I. Trontza Txapelketa.
- 16:00 Musa txosnetan.
- 16:00 etatik aurrera, erraldoi eta buruhandiak ikusgai Askatasuna plazan.
- 17:00 Esku Pilota Txapelketako finalak.
- 18:00 Gaztetxoentzako Auntoke txapelketa.
- 18:30 Patxaranga Elektrotxaranga.
- 19:00 Paella lehiaketa txosnetan.
- 23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.
- Jaien amaiera: Rukula eta Erokomer txosnetan.



San Joan jaietako argazki eta bideo gehiago noaua.eus web orriko Argazkitegian aurkituko dituzue.

# Klaseak amaituta, udako aisialdi ekimenen txanda

Oporetan diren ikasleentzako aisialdiko hainbat ekimen antolatu dira asteotarako:

## Aginagako udako txokoak:

HH3-12 urte artekoak zuzendua. Uztailaren 28ra arte, 09:00-13:00 artean (sarrera ordutegia, 10:00ak arte).

## Zubietako udako txokoak:

Udan zehar, astelehenetik ostiralera, goizez, Zubietan.

## Ziortzaren kanpamenduko txandak:

Antolatzaileak Peñaloscintosen (Errioxa) izan ziren ekainaren 18ko asteburuan kanpamendua altxatzen. Prest dute guztia, gaztetxoak hartzeko:

- 1. txanda (DBH 1-2): uztailaren 3tik 12ra.
- 2. txanda (DBH 3-4): uztailaren 12tik 21era.
- 3. txanda (LH 5-6): uztailaren 21etik 28ra.

## Ekintzak Gaztelekuan

(16:30-19:30 artean zabalik):

- Uztailak 3, astelehena: film proiektzioa denentzat.
- Uztailak 6, osteguna:



Ekainaren 18ko asteburuan Peñaloscintosen izan ziren, kanpamendua prestatzen.

## ZIORTZAKO KANPALDIAK

**“Antolatzaileak Peñaloscintosen (Errioxa) izan ziren ekainaren 18ko asteburuan kanpamendua altxatzen. Prest dute guztia, gaztetxoak hartzeko”**

Gaztelekua margotzea, erabiltzaile guztien artean.

- Uztailak 10, astelehena: ur jolasak denentzat.
- Uztailak 13, osteguna: ur jolasak denentzat.

■ Uztailak 17, astelehena: pizza tailerra denentzat.

■ Uztailak 20, osteguna: pizza tailerra denentzat.

## Argibide gehiagorako:

gaztelekua@usurbil.eus  
943 371 050

## Irteerak:

■ Uztailak 14, ostirala: 12:00-19:30 Kayak Donostian (DBH2).

■ Uztailak 21, ostirala: 12:00-20:00 Donostiako irlara (DBH1).

## Telmo Iruretari buruzko film grabazioa Sutegin

Aktore zumaiaarraren bizi-tzian oinarrituriko “De agua y chocolate” filma ekoizten ari dira. Zati txiki bat, aurreko ekainaren 16an grabatu zuten Sutegin. “Pelikula baino gehiago, hausnartzera eramango gaituen ikus-entzunezko proiektu bat da. Proiektuaren zutabe nagusia Telmo Irureta da”, adierazi zuten. Bi ildo jorratuko ditu filmak; batetik Telmoren amaren narrazio bat, Telmoren haurtzaroz ariko da. Eta gero, gaur egungo Telmo, aktore nahiz pertsona gisa. “Ezgaitasunaren inguruko bere ikuspuntuak hausnartzera eramango gaitu. Ezgaitasuna hitzari berak buelta bat ematen dio. Age-rian uzten du, ezgaitasunaren aurrean dugun jarrera izaten dela batzuetan ezgaitasunik handiena”. Protagonista, Telmo Sutegin bertan zen, baita bere senide, lagunak nahiz filmeko lankideak ere.

Aurrez eginiko deialdiari erantzunez, auditoriora gerturatu eta figurante gisa filmean agertuko diren herritarrek, antzerki baten estreinaldiko gonbidatuen papera bete zuten.

## Zaparra, Musikirun Lehiaketan saritua



Ekainaren 17an Iruen jendaurrean ospaturiko finalean Gaztea Saria jaso zuen Usurbilgo musika taldeak. Zorionak!

## Jende ugari batu zen ‘Plis Plas’ saioan



Ekainaren 20an, Patata Tropikala taldeak “Azken Eguzkilorea” izeneko ikuskizuna eskaini zuen frontoian.

# Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak eskatzeko aukera bi astez

2016ko irailetik 2017ko abuztuaren 31ra bitarte helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egindako usurbildarrek udal diru-laguntzak eskatu ahaliko dituzte ekainaren 26tik uztailearen 7ra udal erregistroan.

“Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2016-2017 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei bekak emateko”, berri eman du Udalak. HABEk homologaturiko ikastaroak lagunduko ditu diruz Udalak. Baita ikastaro ez homologatuak ere, “modulazio txikikoak, baina beti ere ikasturtean zehar urrats bat gainditzen bada”.

## Bete beharreko baldintzak:

- Usurbilen erroldaturiko 16 urtetik gorako herritarra izatea.
- Ikastaroan zehar %80ko asistentzia izatea.
- Euskaltegiaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko den gutxieneko aprobetxamendua gainditzea.

## Irizpideak:

Herritar guztiek matrikula kostuaren % 100 jasoko dute (500 euroko mugarekin), baldintza hauek betetzen badituzte:

- %80ko asistentzia izateagatik.
- Gutxieneko aprobetxamendua. (Aipatutako portzentajeak gutxitu egin daitezke aurkeztutako eskaeraren arabera. Hau da, diru-laguntzetarako dagoen dirua baino eskaera handiagoa bada, proportzionaltasunaren irizpidea aplikatuko da).



Diru-laguntzak ekainaren 26tik uztailearen 7ra arte eska daitezke.

## Behar ekonomiko bereziak dituzten ikasleentzako laguntza

“Usurbilgo Udalarri garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrek. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie”. Laguntza onarturiko herritarrei, 2017ko uztailetik 2018ko ekainaren 30era egin asmo dituzten ikastaroen euskaltegiko matrikula kostua aurreratuko die Udalak. “Diru-laguntza kopuruak izendatzeko kontuan izango diren irizpideak euskara ikas-

leentzako diru-laguntza oinarri orokorretan jasotzen diren berak izango dira”, ohartarazi dute Udalak.

## Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako laguntza

“Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du Udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio Udalarri”. Horregatik aurrekontuetako diru partida bat 2016-17 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak (Eusko Jaurlaritzak homologaturikoak) egin di-

tuzten 16 urtetik gorako usurbildarrak diruz lagundu nahi ditu. Eskabideak ekainaren 26tik uztailearen 7ra aurkeztu ahaliko dira udal erregistroan.

## Bete beharreko baldintzak:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea.
- Araututako epearen barnean titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio Udalarri jasotako diru-laguntza.

## Banatuko den laguntza:

- Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 euro).
- Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen % 50 (gehienez ere 170 euro). (Aipatutako portzentaje hau gutxitu egin daiteke aurkeztu diren eskarien arabera).

## Informazio gehiago:

Ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

## Uztailearen 9an, Bidasoako Kontrabandistak ibilbidearen zazpigarren etapa

■ Uztailearen 9an.

■ Etxalartik Ibarainera.

■ Ibilbidea amaitutakoan Usurbilera itzuliko dira. Ondoren bazkaria izango da eta nahi duenak izena eman dezake irteerara izena ematerakoan, dagokion diru kopurua ordainduz.

■ Irteera nondik: Oiardo Udal kiroldegitik.

■ Ordua: Goizeko 7:00etan.

■ Garraioa: Autobusez.

■ Ibilbidea: 21 km.

■ Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kontuan:

Rural Kutxa: 30080259163005430321  
Kutxabank: 20955069071068489805

■ Izena emateko azken eguna: 2017ko uztailearen 5a.

■ Izena ematerakoan ordaindu behar da:

Irteera soilik: 10 euro.

Irteera + bazkaria: 25 euro.

■ Plaza mugatuak.

■ Oharra: Andatza Mendizaleen Kirol Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean.

# Bertsotan eta kantuan, agur ikasturteari



Jaione Eskuderekin batera kantuan aritu ziren LHko ikasleak.



Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariak, Mahaspildegia elkartearen.

Ikasturteko agurra plazara aterata nahi izan zuten Udarregi Ikastolako ikasleek ekainaren 23an. Azken klase eguneko zati bat LH-koekin frontoian eman zuten kantuan, Jaione Eskuderekin batera bideraturiko saioan. Segidan, Atxegaldeko Mahaspildegia elkartearen bilduzen, urtean zehar bertsolari-

tza eta ahozkotasuna lantzen aritu den ikasle taldea.

## Koplak kantatzen

Hamaiketako ederra dastatu os-

tean, hilabeteotan irakasle izan duten Unai Muñoa eta Ane Labaka bertsotan aritu zitzaizkien ikasleei. Ikasleak adi eta gusturaz entzun zituzten bien koplak.

## Usurbil K.E.-koen agur festa



Egunean zehar ospaturiko lagun arteko eskubaloia partidekin eta gau partean, frontoian, jokalaria, entrenatzaile, guraso edota zuzendaritzako kideak bildu zituen afari baten bueltan agurtu zuen ekainaren 24an 2016-17 denboraldia, Usurbil Kirol Elkarteak.

## Usurbil F.T.-koen agur festa



Goizean zehar gaztetxoekin arteko jolasak ospatu zituzten, eguerdian bazkaria Askatasuna plazan eta gune berean baina gauaz, jokalaria, entrenatzaile, guraso eta zuzendaritzako kideak batu zituzten. Jai giro eta lagun arte ederrean amaitu zuen ekainaren 24an futbolariak, 2016-17 denboraldia.

**Otar-Goxo**  
Elizkarguak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
**693 059 392**  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

# Andatzakoak Benasquera doaz irailean

Iaz bezala, irailaren 9 eta 10eko astebururako antolatu du Andatza M.K.T.-k, urtero egin ohi duen Pirinioetako asteburupasa. “Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3375 m) egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu”, berri eman dute antolatzaileek. Izen ematea zabaldu dute jada.

■ Egunak: irailak 9, 10.

■ Ibilbidea:

Irailak 9: “6:00etan Usurbildik abiatuko gara autobusez. Bidean geldialditxoak egin ondoren, Benasqueko bailarako Eriste herrira iritsiko gara, Angel Orus aterpera abiatzeko”.

Irailak 10: “Angel Orus Aterpetik Posets-eko gailurra egiteko asmoz abiatuko gara. Ondoren Eristera jaitsiko gara autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera iristeko”.

■ Izen ematea: uztailaren 12ra arte.

■ Prezioak:

-Andatzako bazkideek: 36



Uztailaren 12ra arte egongo da izen-ematea zabalik. Argazkia: andatzamendizale.info

euro FEDME gehigarria dutenak; 45 euro ez dutenak.

-Andatzako bazkide ez direnek: 61 euro FEDME gehigarria dutenak; 70 euro ez dutenak.

■ Ordainketak, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak. Izen emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte. Lehenta-

suna Andatzako kideek izango dute.

-Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Komenigarria da izapidetza ahalik eta azkarren egitea”.

■ Informazio gehiago eta hartu-emanetarako: andatza.com andatza@hotmail.com

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## Lur Errekondo, jokalaria onena



Senior mailako jokalaria onenaren saria jaso zuen Lur Errekondo usurbildarrak, Euskal Eskubaloi Federazioak ekainaren 23an Donostiako Amara Plaza hotolean antolaturiko sariketan. Zorionak!

## Euskal Herriko Emakumezkoen Lehen Trontza Txapelketa

Herri kirolek tarte berezia izan ohi dute urtero jaietan. Berrikuntza bat txertatu dute aurtengoan. Euskal Herriko Emakumezkoen Lehen Trontza Txapelketa ospatuko da uztailaren 2an eguerdiko 12:00etan.

### Aizkolari Txapelketa

Ez da uztailaren 2an egingo den herri kirol bakarra. Aizkolariak ere arituko dira Dema plazan. Gipuzkoako Goi Mailako Aizkolari Txapelketa egongo da jokoan.

## Uztailaren 1ean, idi eta zaldi dema

Jaietan, uztailaren 1ean, idi eta zaldi demak eta giza proba antolatu dituzte arratsaldeko 18:30ean hasita.



San Ixidro egunean bezala, jaietan ere zaldi dema egingo da.

## Ramon Unanueren omenezko plaka bat ipini dute Kiroldegian

“Hamarkadatan erakutsi dizkiguzun jakintzak oinarri ditugu betiko, hamarkadatan konpartitutako izerdiaz dugu ernaldutako erronei aurre egiteko grina eta herri honekiko maitasuna. Muxu bana, usurbildarrok maitasunez”.

Hala dio, Ramon Unanue Matxainen omenez, ekainaren 24ko ohorezko aitortza herritar ofizialaren amaieran Oiarde Kiroldegian inauguratu zuten plakak. Omen duaren itzala marraztua duen plaka honen eskaintza egin zioten senideei, Ramon Uribe dantzatu zien aurrekuarekin. Aurrerantzean, Oiarde Kiroldegi sarreran izango duzue ikusgai.



Aitortza herritarren amaieran inauguratu zuten kiroldegiko plaka.

## Herriko Esku Pilota Txapelketako finalak

Igandean, uztailak 2, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Esku Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetakoa. Dena berritua. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalearren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

**Alokairuan**

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Xahkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia

arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelek posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

**MOTORRA**

**Salmenta,**

**garajeak**

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurren 10ean. 620024663

Garbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreraren. 65795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzatat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Astebururako langile bat behar dugu Laukoten okindegian. Bidalitako kurikuluma helbide honetara: [eelorza202@gmail.com](mailto:eelorza202@gmail.com)

Zerbitzari lanak egiteko, neska

edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreratuak. [jm.fandino@catalanaoccidente.com](mailto:jm.fandino@catalanaoccidente.com). 699 760 873.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gaez zaintzeko edo umak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrak emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627



**Zorionak Beñat eta Eneko!** Muxu bana etxekoan partetik!



**Zoriona Nora!** Ekainaren 30ean 6 urte beteko dituzu, muxu haundi bat etxekoan partez.



**Dagoeneko 6 urte, bikoteeee!** Muxu pila bat etxeko guztion partez! Santixabeletan jarraituko degu ospatzen!



**Zorionak Ekain!** Uztailaren 1ean, 7 urte egingo dituzu. Muxu asko zure familia osoaren partez.

**Heriotzak**

M<sup>o</sup> Jesus Collantes Beguiristain (Maixus) 48 urterekin hil zen ekainaren 28an, Usurbilen



Aurelia Infante Muro 69 urterekin hil zen ekainaren 24an, Usurbilen



**OHARRA:** 2017ko uztailaren 7an aterako dugu datorren astekarria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: uztailaren 3an astelehena, eguerdikio 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostirale-ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizetan modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Irtena moduan, orduka edo gaeuz. 677 624 965

Neska farmazialaria seguitan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketara egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatrria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Illeapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lan egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketara, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila nabil.

Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketara lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiru zupaldu orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduko lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoren zaintza, garbiketara lanak, tabernan arraskan aritze-ko.... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketara lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketara, jate tx

batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali me-

zua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketara lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailetik aurrera. **Oso arduratsua. 671 547 567**

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

#### BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. **Zureak badira, deitu: 943 37 13 48**

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurrume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomiko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udal zaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitesia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 29** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 01** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 02** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 03** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astearte 04** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 05** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Ekainak 29 - uztaileak 9

**Osteguna 06** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 07** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 08** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elcano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda ekaina/uztaila

## 30 ostirala

- **Jaiak Usurbilen.** Ikus 18. orrialdea.
- **Zirriborro tailerrekoen erakusketa** Sutegin ikusgai. 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## 01 larunbata

- **Jaiak Usurbilen.** Ikus 18. orrialdea.
- **Zirriborro tailerrekoen erakusketa** Sutegin ikusgai. 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## 02 igandea

- **Jaiak Usurbilen.** Ikus 18. orrialdea.
- **Zirriborro tailerrekoen erakusketa** Sutegin ikusgai. 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## Adi udako ordutegiei

Hainbat zerbitzuz urte garai honetara egokituko dute ordutegia. Adi aldaketoi:

### Oiardo Kiroldegia

- Uztailaren 2an eta abuztuaren 1etik 27ra itxita.
- Udako ordutegia uztailaren 3tik abuztuaren 31ra. Lanegunetan: 07:00-13:00/17:00-20:15. Larunbatetan: 09:00-13:00. Igande eta jai egunetan: 09:00-13:00.

### Garbigunea

- Uztailaren 15era arteko ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:15-13:00/16:00-19:00. Larunbatetan, 09:00-13:00.
- Uztailaren 15etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 10:15-14:00. Larunbatetan, 09:00-13:30.

### Sutegi udal liburutegia

- Uda osoan, astelehenetik ostiralera 09:30-14:00 artean zabalik. Uztaileko astelehenetan, baita 17:00-19:00 artean ere.

### Kzgunea

- Uztailean goizez zabalik, 09:00-13:00 artean. Abuztuaren itxita. Datozen ikastaroak: Uztaileak 3-14, 09:00-11:00 Ofimatika trenak-LibreOffice. Uztaileak 11-12, 11:00-13:00 Youtube. Bideoak ikustea baino gehiago. Uztaileak 17-28, 09:00-11:00 Komunikatu zaitetz sare sozialen bitartez. [tutor.usurbil@kzgunea.net](mailto:tutor.usurbil@kzgunea.net) / 943 023 684



Uztailean, goizez zabalduko dute KzGunea. Abuztuaren itxita egongo da.

### Bus taxi

- Udako ordutegia: uztailean goizez, astelehenetik ostiralera, 07:30-08:30, 10:30-11:30, 13:00-14:00. Arratsalde, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean ez da zerbitzurik izango. Ezta ekainaren 30ean, uztailaren 25ean eta 31n. Abuztuaren ere ez. Irailaren 1etik aurrera, ohiko ordutegira itzuliko da.

### Euskotren

- Udako ordutegia martxan. Larunbat, igande eta jai egunetako arratsaldeetan, trenak ordu erdiro Zumaia-Donostia artean. [euskotren.eus/](http://euskotren.eus/) 944 333 333

### Lurraldebus

- Aldaketarik ez. Informazio gehiago: [lurraldebus.eus](http://lurraldebus.eus/) / 900 300 340

### TSST bus zerbitzua

- Aldaketarik ez. Informazio gehiago: [tsst.info](http://tsst.info) / 943 361 740

### Datozenak

#### Uztailaren 4an, antzerki saioa Aginagako Ludotekan

Uztailaren 4an asteartea, arratsaldeko 17:00etan Aginagako ludotekan. "Jarduera honen helburua 3-5 urte bitarteko umeei beren eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko hondartzan izan behar duten portaera zuzena transmititzea da, beti inguruaren babesa bermatzeko duten portaerak izango direlarik". Antolatzailerak: Antxomolantxa Elkarteak.

#### Uztailaren 5ean eta 6an, Zumarte Musika Eskolaren leku aldatzea

Bi urteko birgaitze lanek iraun artean, Zumarteren bulegoa, Puntapax kaleko global batean kokatuko da. Musika-riak, Udarregi Ikastolan eta Santueneko frontoi atzeko lokalean izango dira. Egungo eraikina hustu eta bertatik materiala behin behineko beste lokal hauetara garraiatzeko bi egun finkatu ditu Zumartek; uztailaren 5a eta 6a. Herritarrek auzolan honetan parte hartzera deitzen dituzte.

#### Laguntzarako txanden ordutegia:

09:00-13:00 Lehen txanda.  
16:00-19:30 Bigarren txanda.

# txirriStra

**TABERNA**

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13    Tel 943 36 04 66

# ELORZA

O BRA K E T A  
E R R E F O R M A K S . L .

## 661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL    [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

# Noaua! App

Herriko berriak beti soinean



Albisteak, agenda eta askoz gehiago Noaua! app berrian. Deskargatu doan eta jaso herriko azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2  
ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sup>n</sup>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



# ONDO PASA SANTIXABELETAN!

